

Manifiesto contra los poligonos eólicos y solares ¡¡Moratoria ya!!

EHNE, ECOLOGISTAS EN ACCION, LURRA NAFARROA, SUSTRAI ERAKUNTZA
FUNDAZIOA, EKOLOGISTAK MARTXAN IRUÑEA :: 25/03/2021

El modelo actual de crecimiento, búsqueda de beneficio y consumo, depredador de recursos están llevando a un punto de no retorno al planeta tierra

[Euskara]

EOLIKO- ETA EGUZKI- POLIGONOEN AURKAKO MANIFESTUA

NAFARROAN MORATORIA BEHAR DUGU!!

Berotze globalaren ondorioak hemen daude. Egungo hazkunde- eta kontsumo-ereduak, planeta egoera larrian jarri dute, bertako ekosistemei eta biodibertsitateari kalte kritikoa eraginez, eta gizartearen bideragarritasuna eta milioika pertsonarentzako bizitza duin eta justua izateko aukerak zalantzan jarritz.

Parisko akordioaren helburua zen tenperatura globala 1,5 zentigradutik gora ez igotzea, klima-aldaketaren arriskuak eta inpaktuak murrizteko. Hori saihesteko, aurrekaririk gabeko trantsizioa behar da energia-sisteman, garraioan, industrian, nekazaritzan, gure eguneroko bizitzan...

Testuinguru horretan, trantsizio ekologiko eta energetikoa planteatzen ari da, energia berriztagarrien iturrien azpiegituren hedapen zabalean oinarrituta. Espainiako estatuan, oro har, instalazio berriztagarrien proiektuen garapen masiboa eta eskala handikoa gertatzen ari da, eta Nafarroak ez dio joera horri ihes egiten.

Gaur egun, berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko proiektu berri eta ugari tramitatzen ari dira gure erkidegoan: Erriberako, Lesakako, Lizarrako (Urbasa-Andia), Lizoain-Arriasgoitiko, Esteribarko, Olaibarreko, Ezkabarteko, Eguesko Haraneko, Anotzibarko, Erdialdeko Eremuko (Valdorba, Ujue, Murillo el Fruto, Tafalla, Artajonako) parke eolikoak eta eguzki-poligonoak Erreniaga, Erriberrin,... Ahaztu gabe Erribera osoan han-hemenka egin nahi dutenak.

Proiektu horiek egiteak inpaktu larriak eragingo ditu ekosistemetan eta finkatu nahi diren komunitateetan. Nekez geldiaraziko dituzte adierazitako arazo klimatikoak. Trantsizio energetikoak, ekologikoki eta sozialki eraginkorra izan dadin, ezin ditu alde batera utzi energia berriztagarrien inguruan nahita ezkututzen ari diren zenbait datu:

- Aldizkakoak dira eta ez daude kontzentratuta; beraz, azpiegitura askoz gehiago instalatu behar dira behar den energia-ekoizpena lortzeko.
- Oro har elektrizitatea ekoizten dute, baina gaur egun Nafarroan kontsumitutako energiaren % 20 baino ez da kontsumo elektrikoa. Horrek esan nahi du ekonomia goitik-

behera berregituratu behar dela, eta hori ez dira planifikatzen ari.

- Eta, gainera, berriztagarriek mineralak erauztearen mendekoak izaten jarraitzen dute; horietako asko urriak dira, eta energia asko eta ingurumen-inpaktu handia behar dute horiek lortzeko.

Horregatik uste dugu trantsizio teknologiko soilak ez dela gai berez berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko. Berriztagarriak ez dira nahikoak gaur egun kontsumitzen dugun energia kantitateaz hornitzeko. Beharrezkoa da kontsumorako xahutze horri modu planifikatu eta demokratikoan aurre egitea, edo bestela errealitate gordina inposatu egingo da eta kontsumoa murriztu egingo da, indarrez eta plangintzarik gabe.

Baina, gainera, berriztagarrien hedapena behar bezala planifikatzen ez bada, gure beharrei eusteko gai izango ez den lurralde bat aurkituko dugu. Esan dugun bezala, teknologia berriztagarriek muga materialak eta espazialak dituzte Nafarroan eta Nafarroatik kanpo. Eta horiek garatzeak presio berria dakar lurraldean, lur-eremu handiak behar baitira, inpaktu larriak eraginez nekazaritzan, paisaian, biodibertsitatean, ekosistemetan eta beste alderdi askotan.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun erakundeok argi eta garbi esan nahi dugu trantsizio ekologikoa ezin dela soilik egin teknologia fosilen ordez teknologia berriztagarriak erabiliz. Gure apustua produkzio deszentralizatuan eta instalazio berriztagarri txikietan oinarritzen da, lurralde-antolamenduarekiko bateragarritasun handiagoa ahalbidetzen baitute, kontsumo-zentroetatik hurbil daudelako, bai eta energia-eraginkortasuna hobetzea eta energia-kontsumoa murriztea ere, egungo xahutzearekin jarraitzea eragin gabe.

Une erabakigarri baten aurrean gaude, Nafarroan makina bat eskala handiko berriztagarrien proiektu ugari ezarri nahi dute. **Testuinguru horretan, gure ustez, beharrezkoa da eztabaida sozial zabala abiaraztea inplikaturako estamentu guztien eta herritarren artean;** eta erabakitzea ea gizarte gisa jabetzen garen larrialdi klimatikoaz; ea prest gauden ingurumen- eta gizarte-balioak interes ekonomikoen gainetik jartzeko; ea ahalegina egingo dugun gure gizartearen behar energetikoak eta materialak murrizteko; ea prest gauden gure kontsumo- eta bizimodu-ohiturak aldatzeko; ea Nafarroa, hausnarketatik, lasaitasunetik eta plangintza demokratikotik abiatuta, trantsizio energetikoaren eredu bat izan daitekeen, edo estatistiketan energia berriztagarriaren ekoizle soil gisa baino ez den agertuko; ea jabetzen garen berriztagarriek ere mugak dituztela, edo teknologia hutsa arazo guztien konponbidea dela pentsatzen jarraitzen dugun; ea herritar gisa gure energia sortzeko prozesuan parte hartu nahi dugun, udal eta herri mailako boterea indartuz, kontsumitzaileak babestuz.

Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektuak klima-alaketaren aurka borrokatzeko oinarri sendoak ezartzen lagun zezakeen; egungo energia-eredua aldatzeko aukera paregabea. Baina ez da horrela izan. Eta gainerako ingurumen-legedia ez da nahikoa, energia berriztagarrien makroproiektuen kopuruari aurre egiteko.

Berotegi efektuko isuriak murrizteko helburuak garaiz betetzeko beharrak, energia-

enpresen gose ekonomiko neurrigabeak eta energia berriztagarrien azpiegituren hedapen itzela gauzatzeko plangintzarik ezak arazoa areagotzen lagun dezakete, arazoa arindu beharrean. Eta gero berandu izango da.

Egoera larri horren aurrean, bi eskaera egiten ditugu:

1/ Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari prozesu sozial bat ahalbidetzea gure erkidegoan trantsizio energetikoa eta garapen berriztagarria demokratikoki planifikatu ahal izateko. Ez dezagun interes ekonomikoek bidea markatzen utzi. Ez dezagun onartu trantsizio energetikoaren izenean akats berberak errepikatzea, espekulazio-eta irabazi-ereduekin.

2/ Bitartean, erakunde sinatzaileok eskatzen dugu berehala eten daitezela gaur egun tramitatzen ari diren instalazio eolikoen, fotovoltaiakoen eta lotutako azpiegituren administrazio-prozedura guztiak. Moratoria horren helburua da arau gehigarriak egitea ingurunearen babesaren arloan, produkzio-instalazioen garapena eraginkorra eta bateragarria izan dadin ingurunearekin, biodibertsitatearen eta gizarte-komunitateen babesarekin.

SINATZAILEOK:

A TOMAR VIENTO - ESTERIBAR BIZIRIK

ENDARA BIZIRIK (Lesaka)

GAZTELUZAR (Leoz)

HAIZE BERRIAK

OLAIBAR BIZIRIK

PLATAFORMA URBASA-HANDIA BIZIRIK

SALVEMOS EGUESIBAR ZAIN DEZAGUN

SALVEMOS EL PERDON 4.0 ERRENIEGA SALBA DEZAGUN

LEHEN ATXIKIMENDUAK:

EHNE, ECOLOGISTAS EN ACCION, LURRA NAFARROA, SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDAZIOA, EKOLOGISTAK MARTXAN IRUÑEA, EXTINTION REBELLION PAMPLONA / IRUÑEA,...

EHNE, Ecologistas en accion, Lurra Nafarroa, Sustrai erakuntza fundazioa, Ekologistak martxan Iruñea, Extintion rebellion Pamplona / Iruñea,...

Navarra, 25 de marzo de 2021

MANIFIESTO CONTRA LOS POLIGONOS EÓLICOS Y SOLARES ¡¡MORATORIA YA!!

Los efectos del calentamiento global ya están aquí. El modelo actual de crecimiento, búsqueda de beneficio y consumo, depredador de recursos y generador de emisiones de gases de efecto invernadero están llevando a un punto de no retorno al planeta tierra, sometiendo a un daño crítico a sus ecosistemas, a su biodiversidad, cuestionando la viabilidad de las sociedades y las posibilidades de una vida digna y justa para millones de personas.

El acuerdo de Paris se marcaba como objetivo ambicioso impedir que la temperatura global no aumente por encima de 1,5 centígrados para reducir los riesgos y los impactos del cambio climático. Para evitarlo se necesita una transición sin precedentes y de gran alcance en el sistema energético, en el transporte, en la industria, en la agricultura, en nuestra vida cotidiana...

En este contexto se está planteando una transición energética basada en un amplio despliegue de infraestructuras de fuentes de energías renovables. Estamos asistiendo a un desarrollo masivo y a gran escala de proyectos de instalaciones renovables a nivel del conjunto del Estado español, y Navarra no escapa a esta tendencia.

En nuestra comunidad actualmente se están tramitando nuevos y numerosos proyectos de generación de energía eléctrica mediante renovables: polígonos eólicos en Lesaka, Tierra Estella (Urbasa-Andia), Lizoain-Arriasgoiti, Esteribar, Olaibar, Ezkabarte, Valle de Egües, Anotzibar, Zona Media (Valdorba, Ujué, Murillo el Fruto, Tafalla, Artajona); polígonos solares en la zona de la Sierra de El Perdón y Olite. Sin olvidar la avalancha de proyectos eólicos y solares a lo largo de toda la Ribera.

Realizar esos proyectos va a suponer graves impactos en los ecosistemas y en las comunidades en los que se quieren asentar. No sólo eso. Tal y como están diseñados difícilmente van a contribuir a frenar los problemas climáticos indicados. La transición energética, para que sea efectiva ecológica y socialmente, no puede ignorar una serie de datos que se están ocultando deliberadamente en torno a las energías renovables:

Son intermitentes y no están concentradas, por lo que es necesario instalar muchas más infraestructuras para conseguir la producción energética necesaria.

En general, las renovables producen electricidad, cuyo consumo en Navarra representa tan sólo el 20% de la energía total consumida. El resto es de origen fósil. Ello implica una necesaria reestructuración de la economía que no está siendo planificada.

Y, además, siguen siendo dependientes de la extracción de materias primas, que es preciso importar, muchas de las cuales son escasas y requieren de mucha energía y mucho impacto ambiental para conseguirlas.

Por eso creemos que una simple transición tecnológica no es capaz por sí sola de reducir las emisiones de gases de efecto invernadero. Las renovables no son suficientes para

proveernos de la cantidad de energía que consumimos hoy en día. Es necesario hacer frente a ese derroche en el consumo de una manera planificada y democrática, o de lo contrario la cruda realidad se impondrá y reduciremos el consumo a la fuerza y sin planificación.

Pero, además, si no se planifica adecuadamente el despliegue de las renovables, nos encontraremos con un territorio que ya no será capaz de mantener nuestras necesidades. Como hemos dicho, las tecnologías renovables presentan marcados límites materiales y espaciales, en Navarra, y fuera de Navarra, y su desarrollo supone una nueva presión sobre el territorio, al requerir grandes extensiones de terreno, que pueden ocasionar graves impactos sobre la agricultura, el paisaje, la biodiversidad, los ecosistemas, y muchos aspectos más.

Por todo ello, **las entidades abajo firmantes queremos decir bien alto que la transición ecológica no puede quedarse en una mera sustitución de tecnologías fósiles por tecnologías renovables.** Nuestra apuesta se basa en la generación distribuida y descentralizada, en pequeñas instalaciones renovables, que permiten una mayor compatibilidad con la ordenación del territorio, por su proximidad a los centros de consumo, reduciendo las pérdidas de transporte, así como una mejora de la eficiencia energética y la reducción del consumo energético, que no suponga continuar con el derroche actual.

Estamos ante un momento decisivo, ya que nos encontramos ante un aluvión de proyectos de renovables a gran escala en Navarra. **Consideramos que es necesario abrir un debate social amplio entre todos los estamentos implicados y la ciudadanía;** y decidir si como sociedad somos conscientes de la emergencia climática; si queremos que prevalezcan los valores medioambientales y sociales frente a los intereses económicos; si vamos a hacer un esfuerzo para reducir las necesidades energéticas, materiales de nuestra sociedad; si estamos dispuestos y dispuestas a cambiar nuestros hábitos y niveles de consumo y modo de vida; si Navarra, desde la reflexión, el sosiego y la planificación democrática, puede ser un modelo de transición energética, o solo va a figurar en las estadísticas como mero productor de energía renovable; si somos conscientes de que las renovables también tienen límites, o seguimos pensando que la tecnología es la solución a todos los problemas que nos acechan; si queremos participar como ciudadanas y ciudadanos en la generación de nuestra propia energía, fortaleciendo el poder municipal y comunal, o vamos a permanecer como meros agentes consumidores, a merced de un modelo centralizado, propiedad del oligopolio energético; si queremos proteger nuestra agricultura, nuestras montañas, nuestros valles, nuestros pueblos, nuestro patrimonio medioambiental, nuestra diversidad cultural y nuestra forma de entender la naturaleza; o si realmente no apostamos por ello.

El anteproyecto de Ley Foral de Cambio Climático y Transición Energética podía haber contribuido a sentar unas bases firmes con las que luchar contra el cambio climático; una gran oportunidad de modificar el modelo energético actual. No ha sido así. Y el resto de legislación medioambiental es absolutamente insuficiente frente a la cantidad de macroproyectos de energías renovables que se nos viene encima.

La necesidad de cumplir a tiempo con los objetivos de reducción de emisiones, el desmedido afán económico de las empresas energéticas, así como la falta de planificación para llevar a

cabo el ingente despliegue de infraestructuras de energías renovables, pueden contribuir a agrandar el problema, en lugar de mitigarlo. Y luego ya será tarde.

Ante esta grave situación, dos son las demandas que realizamos:

1/ Exigimos al Gobierno y al Parlamento de Navarra que posibiliten un proceso social para poder planificar democráticamente la transición energética y el desarrollo renovable en nuestra comunidad. No permitamos que la precipitación, las prisas y los intereses económicos marquen el camino. No permitamos que en nombre de la transición energética volvamos a repetir los mismos errores, con modelos especulativos y de lucro.

2/ Mientras tanto, las entidades firmantes exigimos la inmediata suspensión de todos los procedimientos administrativos, actualmente en tramitación, de macro plantas eólicas, fotovoltaicas e infraestructuras asociadas. El objetivo de esta moratoria no es otro que permitir la elaboración de normas adicionales de gestión en materia de protección del medio para que el desarrollo de las instalaciones de generación sea efectivo y compatible con el entorno, la protección de la biodiversidad, de la agricultura y de las comunidades sociales y su arraigo en el territorio.

FIRMANTES:

A TOMAR VIENTO - ESTERIBAR BIZIRIK

ENDARA BIZIRIK (Lesaka)

GAZTELUZAR (Leoz)

HAIZE BERRIAK

OLAIBAR BIZIRIK

PLATAFORMA URBASA-HANDIA BIZIRIK

SALVEMOS EGUESIBAR ZAIN DEZAGUN

SALVEMOS EL PERDON 4.0 ERRENIEGA SALBA DEZAGUN

PRIMERAS ADHESIONES:

EHNE, ECOLOGISTAS EN ACCION, LURRA NAFARROA, SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDazioA, EKOLOGISTAK MARTXAN IRUÑEA, EXTINTION REBELLION PAMPLONA / IRUÑEA

<https://eh.lahaine.org/manifiesto-contra-los-poligonos-eolicos>